

Zuzendaritza talde estimatua:

Ikasturte hasieran zuengana jotzen dugu SAREAN elkarteko kide zarenez gure agurra luzatzeaz gain, elkarteari buruzko zenbait argibide emateko.

Dakizun bezala, Sarean elkartea Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeen elkartea da. Elkartearen helburu nagusia Euskal Eskola Publikoa hobetzea da. Helburu hau lortu nahian, SAREAN elkarteak hezkuntzari dagozkion gai, kezka edota arazo desberdinen azterketa ikastetxeen arteko lanketaren bidez egitea bultzatzen du. Era berean, ikastetxe eta Administrazioaren arteko harremanak errazten eta Eskola Publikoaren beste elkarteekin batera lan egiten du.

Ikasturtean zehar hamaika gai eta zalantza sortuko zaizkigu eta denon artean, erantzunak bilatzen ahaleginduko gara. Zonaldeetako koordinatzaileekin elkarlanean, Euskal Eskola Publiko sareratuago baten bila jarraituko dugu. posta@sarean.net helbidean adi izango gaituzu edonolako iradokizunik izan ezker. Aurrez aurreko aukera ere izango dugu noski, hilero egiten ditugun koordinazio bilera, jardunaldi pedagogiko zein lurralde topaketetan. Aurtengoan, elkarlanerako tresna berria dugu, www.sarean.net web orrian sortu dugun bazkideen foroa alegia.

Aurten aurreikusten ditugun bilera eta jardunaldien datak hauek dira:

SAREAN ELKARTEKO KOORDINAZIO BILERAK eta JARDUNALDIAK	
<i>IRAILAREN 27an</i>	OTSAILAREN 28an
URRIAREN 25ean	MARTXOAREN 28an (Lurralde Topaketak)
AZAROAREN 22an (VII. Jardunaldi Pedagogikoak)	MAIATZAREN 23an
<i>ABENDUAREN 13an</i>	<i>EKAINAREN 6an Asanblada</i>
URTARRILAREN 24an	

Amaitzeko, Sarean Elkarteko www.sarean.net web orri berria bisitatzeraz animatzen zaituztegu bai eta bere @SAREANeskolak twitter kontua jarraitzeraz eskuarki, bide horiek erabiliko baititugu berri nagusiak partekatzeko. Edozein iradokizun izan ezkero luzatu ezazu eskura dituzun bideetatik

Elkarlanean jarraitzeko gure nahia berretsiz, gure agurrik beroena

SAREAN Elkarteko koordinazio taldea (Zortzikoa)

Eibar, 2018ko irailaren 17a

